

# KANALAK

Banaketa-kanalei dagokionez bitartekarien bidezkoa da gurea, hau da gu salmentaren zatia bakarrik jorratuko genuke. Produktuak behin enpresari erosita beste enpresa bat kontratatuko genuke banaketa zerbitzua egingo lukeena. Hortaz, gure esku bakarrik organizazioa eta ordainketa dago

Komunikazio Kanalari dagokion atala, sare sozialen eta web-orriaren bidezkoak dira . Kanal propioen eta elkartuen nahasketa bat dugu. Beste enpresa askoren artean promozioak egin ditzazkegu plataforma handietan. Alabaina, haietan erakutsiko genuena bera gure esku izango da, orduan, kanal propio eta zuzen bati buruz hitz egiten ari gara.

Salmenta Kanala berriz gure makinak emandako zerbitzuari utziko diogu kargua, berez makinak auto zerbitzurako prestatuak baitaude. Horrela, kanal propio eta zuzena dugu berriro. Makinaren sinpletasunari esker kudeaketa errazten da eta etekin-margina handiagoa eskaintzen du. Hori bai, mantenimendua eta aberien konponketa, baita makina bera ere, garestiak dira.

Kanal moten nahasketa honen bidez lortzen dugu oreka egokia, salmenta ahalik eta handienak lortu. Aldi berean, bezeroen esperientziaren kalitatea mantenduz.